

Jose Lizarralde Jauregi
Antzuola, Gipuzkoa (1916-1989)

Aurkibidea

Biografia

Uzarraga auzoko Iturriotz baserrian jaio zen 1916an eta bertan bizi izan zen bizi osoan. Uzarraga auzoaren eta baserriko bizimoduari buruzko kontu ugari jaso zitzaizkion.

Zintak

ANT-032

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iparragirre San Sebastian, Gotzon
- **Data:**
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Trenaren inguruko gertakizuna

- **Erref:** ANT-032/001
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trena deskarriatu zeneko kontuak.

Transkripzioa

-Periodikuak be anunziau dittu, periodikuak be historiala-ta horrena. Esaten dabe trena, izan biher eban "catorce de julio" deskarrillau zana. Eta orduan oin baiño, azkenian baiño trena inporantiaua euan, kamiñuan jente gutxiao ibilliko zan eta danak trenez. San Fermiñetara Panplonara juteko jentia etorren goittik behera, eta kotxe-kamak eta danak euzkan.

-Inportantia orduan.

-Hamen estaziño hontan euan orduan agujia trenai zertzeko, aparkatzeko. Jente asko. Deustuko alkatia eta min hartu eben, geurian egon zien, hemetxe egon zien.

-Zer, ospital moduan edo?

-Ospittal moduan ez. Gero norabait etxetara jaso bittartian ba geurera jaso ta hementxe gurian.

-Eta ze pasau jakon trenai, deskarrilau edo...

-Agujia, ez dakit ba nik, agujia gaizki ipiñi edo zeeze ein eta. Goittik behera erten dau, erten bere karrilletik, erten eta goittik bera.

-Hilddakoik eta ez zan egongo?

-Bat uste dot hil zala, orduan momentuan ez baiña bat hilda bai. Eta bestiak grabe beste batzuk. Bat arabarra be bazan eta beste bat Bilbokua. Deustuko alkatia bat hemen egon zana eta beste bat "un tal Braseras", gizon famaua. Hemen ein otsen kurak eta.

-Eta hori ze urtetan izen zan?

-Ez dakit ba nik. Hola buruz esateko ez daukat. Konserbatzen dok handik bialdutako faktura bat, hemen egon zien istantzia (estantzia), konserbatzen dok, hemen egon zien, gero konpaiñiak pagau euen hemen egon zien bittarteko istantzia. Eta batek propiñia emon eban azkenian ondo tratau ebelako, berak partikular. Baiña bendak eta bertan, izarak apurtuta izarakin ein bendak eta.

-Ez zien egon be ingo.

-Egon ingo zien baiña nun. Eta gero "sábanas" eta "tantos reales" ta. Hor dao papel bat ordukua, konserbatzen dana.

-Eta hori pagau ein zotsuen zuri?

-Bai.

-Zeiñek pagau zotsuen?

-Konpaiñiak. Bilbotik etorri jakun hemen egon zieneko denporakuak. Pagau ei eben, ni ez nintzan artian, jaiotzeke nenguan, ezta.

-Orduan urte dezente die orduan.

-Urte asko, urte asko. Oso tren inportantia.

-Zer zien, literak?

-Kotxe-kamak, kotxe-kamak eta...

2. Trenaren garrantzia

- **Erref:** ANT-032/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:04:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Trenaren garrantzia. Trenbidea nondik nora zihoan. Erromeriatara edo elizkizunetara trenez etortzen zen jende asko.</p>

Transkripzioa

- Trena oso inportantia zan orduan. [...]
- Guk hemen trena praktikamente... Urte pilla bat izengo dia trena kendu zebela be. Ni Kaxetako tren txikixakin akordatzen naiz.
- Hauraxe da azkenengua.
- Zeuek be ezautuko ziñuen trena haundixa.
- Jente asko ibiltzen zan orduan. Hamen estaziñotan eta. Uzarrara orduan etortzen zan jentia, [...], bueno! Bergan Pazkuetan [beste]. Trena betian etortzen zan jentia erromeixara Uzarrara, ordu bittako trenian eta. Eta elizkizuna edo zeoze zanian eta, trena bete-betia. Santa Lutzietan Zumarrara eta, billetiak saltzen gizon bat zenbat etortzen zan, hamabittako trenian etorri, bertan geratzen zan eta takillara, kanpuan billetiak emuten zittuen; jente asko.

3. Trenbideko kaltzadoreak

- **Erref:** ANT-032/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Trenbideko kaltzadoreen karroa. Nondik-nora ibiltzen ziren materiala ekartzen; trenbidea zaintzen, konpontzen; etab.

Transkripzioa

-Ni Kaxetako tren txiki hartan ibilitta nao Gervaxiokin eta. Goittik behera tuneleraíño etorri eta gero gora taka-taka jaso eta berriz. Trena ez, karruan moduko zer bat zan, txikixa.
-Mesillia, galtzadorienak horrek.
-Halakon bat izengo zan. Gero holako zer bat zeukan, eta haura jaso eta bajau eta berriz Kaxetara bueltau giñan.
-Bai, baiña hori ez zan, makinaik eta ez zeukan.
-Ez, ez. Ezebe.
-Horrek zian, mesillak zian horrek. Trabiesak partitzeko, eta alde batetik bestera juteko eta karro batzuk zien horrek, mesillak esaten jatenak, galtzadoriak, bertako langilliak ibiltteko. Osea ke [kargetan] eukan aparkadero bat. Han sartzen zien eta etortzen zien. Honaiño ez, kantoia euan honaiñotxekua eta gero hemendik Bergara beste batzuk, Mekolaldera, ipiñi kruzia, bata bestiakin grupuak. Kaxetakuak pasia eukan

hona artekua, eta Deskargatik honaiño etorten zien [...] trabiesak partidu bihar bazittuen eta materiela ekarri bihar baeben, dana ipiñi han eta behetik gora norberak eruan biher, soka bat holaxe hartuta trabes ipiñi egur bat eta karrillian, norbera plantxan eta tra-tra-tra, edarto ibiltzen zan haura. Bultzaka errez juten zan, baiña jun ein bihar.
-Eskerrak aldapa haundirik ez dagonai.
-Ez, honek aldapa txikixa dauka. Dos por zientua edo holaxe dauka bakarrik. Unan baten, kurban baten zeoze gehitxuao euki leike baiña. Estaziñuan danetan zero. Estaziñuan berdin. Estaziñuan ez dabe amititzen.

4. Antzina, alde guztietara oinez; tren

- **Erref:** ANT-032/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Jendea lehenago oinez ibiltzen zen alde batetik bestera, feriara, esate baterako. Trenak ere garrantzi handia zuen.</p>

Transkripzioa

-Azkenian jentia gehixenbat trenian ibiliko zan.
-Trenian. Trenian edo oiñez. Oiñezkua, bueno, Bergara ta sekula pentsau bez. Gu errez juten giñan e, hemendik Bergara jutia ez zan ezerre. Bergara makiña bat bidar joanda gare, baitta Villafrancara be, orduan ferixia haundixa eiten zane ta. Villafrankara ferixara junda behixa erosten bazan be, behixakin danba-danba sokatik etxera. Eta ni junda nao nere denporan be bai, Elutzakuak bihor bat euken saltzeko eta, Pedro Migel eta bixok, Pedro Migel hil zan, Roken aitta. Bixok joan giñan behorrakin Villafrankara eta ez giñuan saldu. Eta gero Pedro Migelek puxkat kalenturia be baeukan eta neuk esan notsan, jun zaitte, neu etorriko naiz bakarrik. Ez giñuan saldu eta atzera harekin etorri bihar. Atzera harekin etxeraiño. Usauta holaxe, ez jakun miraik irixten. Urrin eta bai baiña jun bihar danian ba kitto, etsi eta jun in bihar.

5. Toki batera eta bestera oinez

- **Erref:** ANT-032/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Jendea lehenago oinez ibiltzen zen alde batetik bestera.

Transkripzioa

-Orduan zeoze zan artian baiña lehenao oiñez ibiltteko kostunbria haundixa euan. Urkiolara ta jentia oiñez asko, e.
-Jakiñian bueltau bihar ziela.

-Hori egun baten barruan?
 -Bai, bai, egun baten.
 -Ze ordutan jaiki?
 -Hoixe, ba eguna zabaldu orduko. Gabian hamabi t´erdietan [...] jun da, hango mezia entzun eta atzera bueltan gaberdirako.
 -Eta junda zela, linternekin eta?
 -Ez, kamiñuan. Batzuk, atajuak eta bazien baiña, ni neu ez naiz jun sekula.
 -Guri esateko holako bat. "Para rato".
 -Bueno, ni Bergara ez nitzake jungo, pasau be ez burutik.
 -Kamiñuan ibiltteko ta gaur ez dao gustoik, trafiko gehixegi dago ta..

6. Erromeria Uzarragan

- **Erref:** ANT-032/010
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:19:30

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeria ezaguna Uzarragan. Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen. Erromeriak galtzen noiz hasi ziren. Gerora, herriko plazan egiten zen dantzaldira joateko ohitura. Kanpaien izenak: aramaitakoa, angelusa, etab. Lehenengo autoak.</p>

Transkripzioa

- Uzarragan jente asko egoten zan orduan.
 - Eske len Uzarraan...
 -E rromeixia ikaragarrixa. Elusu, Plazentziako jente asko etorten zan, Eibartik be uda partian jente asko egoten zan Antzuolan. Orduan euan abadiak ba horko jentiakin amistade haundixa eukan eta jente asko egoten zan.
 - Eta honek erromeixia honek, Azaldittakua ta Uzarrakua eta honek noiz hasi zien galtzen? Zenbat urte dien, asko izango dia, ez?
 - Bai. Uzarrakua gerra aurretxean edo hasi zan galtzen.
 - Ohitturak galdu zielako ala bestela?
 - Gerra aurretxean ez, gerra ondorian izengo zan. Geuk euki giñuan Uzarran azkenengo, hogeta hamar mutillek-edo, jaixan pezeta bat botatzen giñuan. Bai, gerra ondorian. Pezeta bana botatzen giñuan hiru auzotako mutillak eta kitto, erromeixia dantzia pagau biharrik ez. Danon artian eusten gontsan soiñujoliai, Alejandro ta. Alejandrokin eukitzen giñuan konpromisuoi eindda, bera ez zanian ba besten bat ekarten eban, berak bialtzen oskun. Gero Uzarra gastau zanian, kalera hasi giñan, kalera gero, soiñujoliakin. Lengo sozioko mutillok atzera berriz juntau giñan eta. Hogeta hamar lagun, danak ez giñan dantzarixak izengo, baiña gehixentsuak dantzarixak be, han parte eukenak. Badakizu hogeta hamar mutil... plazia bete eitten zan. Hogeta hamar mutil asko da, hogeizenda be. Danak ez zien beti jungo baiña hogeizenda be. Plazan hogeiz mutil dantzaz hasittakuan korro dezentia eitten da, e!
 - Erromeixia izeten zan bakarrik?
 - Bai, Uzarran erromeixia.
 - Gabian, atsaldian?
 - Bai. Aramaittakua jotakuan etxera.

- Zer? Hamabixak aurretik?

- Amaittakua. Anjelusa. Amaittakua esaten jakon.

- Eta hori ze ordutan izeten zan?

- Ointxe istantzian, laster joko dau.

- Bai?

- Uzarran joko dau, segitzen dau joten. Anjelusa.

- Nik Anjelusa bakarrik eguardikua.

- Aramaittakua. Illuntzikua, goizian egunsentixan be bai eta oin'e bai.

- Hiru Anjelus joten die egunian?

- Lehen joten zien eta oin joten dabe eguardixan eta illuntzian joten dabe. Len Antiguan be joten zan len, zuek ez zate akordatzen? San Martzalen'e bai ta, San Blasen ez dakit. San Martzelen'e joten zan len. San Migelen'e bai. Uzarrak segitzen dau. Istantzian...

- Osea, orduik ez dauka?

- Istantzian.

- Orduan hasi erromeixak noiz itten zien?

- Atsaldian, denporaz samar hasten zan.

- Istantzian. Orduan gabaz eta ez zan...

- Bai... Orduan e.

- Afaltzera etxera, ezta?

- Itten zien afarixak eta. Uzarran meriendak jaiero. Kuadrillak, dana beteta egoten zan.

- Erromeixia ez egon arren?

- Uzarrara etorri zan san Juan txiki egun baten Bergako txofer bat, Urbano, lengo bide zarretatik kotxiakin ixo eban, eta hirurogetaken bazkaixa Uzarran, orduan haura etorri zan. Elusura joan zan Uzarratik gora, eta Elusura joan zan eta Elusuko Labiako andria, sekula automoillik ikusi barekua automoillian ebali eban. Lelengo sartzeik nahi ez, danak hartu aidian eta sartu gaiñian eta han Bentako gaiñian uste dot ebali ebela andrioi kotxian.

- Billurra-edo?

- Bai ba, sekula ikusi barik eta. Baiña jun in bihar zan, e, hemendik Uzarrara lehengo bide zarretik gora ixo eban harek e, ez euan kamiñoik eta, bide zarretatik zihar.

- Eta gero Uzarratik Elusura nundik buelta jun zan ba?

- Ba hortxe, nunbaitetik. Harek hirurogetakak, bost duro aginduta Tomas Iñarrak hona etortzen bazan, eta bestia etorri ta. Sekula igo barik zeon Uzarrara. Etorri zan behintzet eta. Hartu bizkarretik eta txanpaiña emun otsen eta. Orduan txanpaiña zan e, bueno... Gaur inportantzia haundirik ez jako emoten baiña orduan txanpaiña [...] gauza haundixa zan.

7. Bizitzarekiko ikuspegia

- **Erref:** ANT-032/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:20:40

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua zeharo aldatu da. Bizitzarekiko ikuspegia.

Transkripzioa

- Zelako diferentzia haundixa, ez? Mortala, ez?
- Kotxiak eta orduan zenbat egongo zien ba?

-Esan be eitten dabe geuk biziko doguna haundixaua izengo ete dan honen edadera aillegatzen baga.

-Onerako ala txarrerako, hoixe ez dakit.

-Hori segun. Zela norberak hartzen daben be bai. Onerako izanagatik norberak pentsatzen ez baldin badau ona dala. Guretako horregatik gauza txarra ikustia ona izeten da jentiandako be apreziatzeko. Baiña txarra ikusi barekuak ez dau apreziatzen ona [...]

-Zurixa jaitzeko beltza jakin bihar ei da.

-Eta basarriko lanak lehendik hona aldatu dia asko ala?

-Eitten da. Basarrixan ez da ia eitten lanik. Ostian erreminttak eta bai aukera haundikuak, baiña ez dala labratzen. Orduan garixa be asko ereitten zan eta, artua be bai ta. Gaur garirik Antzuola guztian ez da ereitten. Orduan etxeik ez zeon garirik ereittekeik. Neuk ereitten dot San Isidrotarako. Puxketatxo bat. Botatzen dot holako korrotxo bat San Isidrotarako.

-Eta hori ze da, ez dalako rentabilia edo?

-Itxuria. Ez, ez da. Basarrixak [...] ez da geratzen. Hara! Zela esango dotsut, basarrixan janik ez da falta, baiña kaleko moduko dirua errez irabazi be ez. Eta jentia libetade haundixa dauka kalia. Eta andrakumiak ´e berriz kalekuak ez dauke konparaziñoik. Basarriko andriak lana ein bihar izeten dau sarrittan gizonak baiño gehixao. Gizonakin batera kanpuan eta gaiñera etxeuak. Eta kalia berriz holakoik ez dauka andriak. Eguakitzian lanetik erten eta domekara arte fuera, eta bakaziñuak eta beste gauza batzuk.

-Libetade gehixao.

-Segiakin ebaitzen zien bedarrak be, eta makinak [...] Nik ezautu dittuten basarrixak aber zenbat hustu dien Antzuelan. Neuk ezaututakuak asko. Asko. Galartza auzuan, Txangala esaten jakon, hustuko zien nere akorduan, Gorla bat, oin erreterero moduan etorritta badare atzera Euzkitzetan eta, baiña horrek hustu ein zien eta atzera oin erreterero, ez dakit ze jente daon e. Gorla, Etxenausi, Etxeberritxo, Galartza Kaxetia, Galartza. Galartza bixak aldeta, oin Bergatik etorritta dare baten batzuk, baiña. Besasti, Mendiola, Sarralde, Arrasate, horrek danak hustuta dare.

-Arrasate hemen goixan ez dago hori? Jausitta dago, ez?

-Ez dago jausitta. [...] baiña jausteke dago. Horrek nere akorduan. [...] Galartzan be jiratzen zien lagun pillal galanta eta. Eta komuniua einddakuan hamar urte arte eskolatik etxera eta hantxe etxekuekin batera lanian. Zazpi urtekin eskolara. Behin hamar urte ezkerro, hamabi urtera baten batzuk egongo zien baiña, basarrikuak jeneral e...

8. Baserriko lanak; bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** ANT-032/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:23:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko lanak. Lehenago garia, artoa, e.a. ereiten zen. Egun, baserrietan ez da soroan lanik egiten. Baserri asko hustu dira azkenengo urteetan. Baserri izenak. Umetako bizimodua baserrian.

9. Uzarragako eskola

- **Erref:** ANT-032/014
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:27:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Eskola kontuak. Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten. Baserriko umeak vs. Kalekoak. Eskolako materiala. Uzarragako eskola. Elosutik umeak negu aldean Uzarragako eskolara nola joaten ziren.

Transkripzioa

-Euen atsaldia pozik umiak orduan, euen atsaldia jai emoten otsen.
-Haura...
-Sagraua.
-Bai. Haura estimaua.
-Nahixao orduan be eskolara ez jutia.
-Orduan be.
-Bueno!
-Oingo antzera orduan.
-Eskolara jutun zana be, asko basarriko jentia jutun zan jolasian eittiagatik gehixenbat.
-Kalekuak ´e antzera.
-[...] Jutun zien jolasian eittiagatik, basarrixan ez zeon jolasik eta.
-Lagunekin behintzet, ezta?
-Poltsa bat hartu trabes eta. Katona eta dotriña eta pizarriña, pizarra bat. Eta "Laxen Busto" edo izeten zien hortaiko hojalatazko zer batzuk lizeten zien, estutxetxo batzuk, "Laxen Bustokin" etorten zienak. "Laxen Busto" zan medizina bat, ez dakit purgia edo ze zan "Laxen Busto", bai. Haretaiko hojalatazko holakotxe bat, Pizarriñiak han, sartuta han barruan. Antxintxika hasittakuan ttikirri-ttikirri-ttikirri! pizarriñok han zaatia dabela.
-Baiña deberrik eta etxerako ezebez. Dotriña.
-Ez, gero kalia hasi zien puxkat.
-Eta Uzarran hona eskolara jutun ziñaten ala?
-Bai, lelengo Uzarrara. Uzarran baita Irimoegittik be.
-Hona etortzen zien?
-Bai. Otamendiko Esteban eta hona etortzen zien. Elusutik Kortaberritti be bai hona. Eta edurra einddakuan eta edurretan, zuek ez dakizue ze dien eta, baiña esplikaiko dotsuet. Orduan iketza eitten zan asko, eta iketza zakutan sartuta, zakuan goixa muturra lotzeke ipintzeko, hola silla-ipurdi, zimitzezko honen eta moduko zimitzezko aro batzuk ipintzen zien, gaiñetik ipini, gero josi bueltan eta muturra eitten otsen iketz-zakuei, iketz-txapak esaten jaten, eta Kortaberrittik Uzarrara etorten zien hanketan lotu bai harek eta edurretan ez sartzeagati. Harek hanketan lotu eta edurretan [...].

10. Negu gogorak

- **Erref:** ANT-032/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:28:40

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehenagoko neguak gogorrak izaten ziren. Antzinako kontuak.

11. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ANT-032/016
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:30:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko bizimodua. Goizean goiz jaiki behar izaten ziren. Jatekoa baserrian: berakatz-salda; gaztainak; e.a.

12. Taloa, artoa

- **Erref:** ANT-032/017
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Taloa, artoa, morokila. Laba-sua noiz egiten zen. Arto-irina; gari irina eralgi egiten ziren.

13. Txokolatea baserrietan

- **Erref:** ANT-032/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:05:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txokolatea. Kanpoko norbait etortzen zenean (jostuna, e.a), txokolatea eta "bolatuak" jaten ziren.

14. Bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** ANT-032/019
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:25

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua zeharo aldatu da. Bizitzarekiko ikuspegia.

15. Gaixotasunak

- **Erref:** ANT-032/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:08:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Gaixotasunak. Ama partera bezala ibiltzen zen auzoan. Usenak gaixoei.

16. Gaixotasunak; erremedioak

- **Erref:** ANT-032/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Gaixotasunak; erremedioak. "Usenak" (izainak) gaixoei.</p>

17. Gaixotasunak

- **Erref:** ANT-032/025
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:11:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Gaixotasunak; erremedioak. Usenak gaixoei.

18. Erditzeak baserrietan

- **Erref:** ANT-032/026
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:12:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Emakumeek etxean erditzen zuten lehenago eta sarritan zailtasunak egoten ziren.

19. Medikua baserrietara

- **Erref:** ANT-032/028

- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:13:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Medikua etxera joaten zen umea jaio behar zenean.

20. Bergarako Pazkoak umetan

- **Erref:** ANT-032/030
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:18:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Baserrietan Bergarako tostoioak eta Malvaviscoak. Pazientziak. Umetan Bergarara joaten ziren Pazkoatan, eta zer erosten zuten orduan: "txintxin-pelotia". "Tio-vivo"-ak

21. Bergarako pazkoak; musika

- **Erref:** ANT-032/032
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:22:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Begarako Pazkoak. "Tio-vivo"-ak. Goiko plazan filarmonika egoten zen eta Espaloian musika. Pieza bakoitzeko mutilak zerbait ordaindu behar izaten zuen.

22. Antzuolako jaiak

- **Erref:** ANT-032/033
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:22:45

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Antzuolako Piedadetan, Bergarako Musika Bandak pasakalea egiten zuen. Moruen gerra; pilota partida.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com